

VOLKSWAGEN. Iraupenean eta soldata igoeran daude aldeak

Langileek bi proposamenak eztabaidatuko dituzte gaur

UGTk eta CCOOk egindakoari erantzun diete ELAk eta LABek



MIKEL UHARTE

Volkswagenean denbora dezente daramate zuzendaritzarekin lan hitzarmena eztabaidatzen.

I. Arrizurieta | **IRUÑEA**

UGT eta CCOOk iragan ostira-lean Nafarroako Volkswageneko lan hitzarmenaren negoziazioa hitzartzeko zuzendaritzari aurkeztu proposamenari erantzun zioten ELA eta LABek atzo. Gaur bi aldeek proposamenak eztabaidatuko dituzte langileek batzarrean. ELA eta LABek mahai bateratua haustea egotzi die beste bi indarrei.

UGT eta CCOOk Iruñeko Volkswageneko negoziazio mahai bateratua hautsi zuten ostira-lean, zuzendaritzari proposamen bat eginez. Bi sindikatuok 19 ordezkaritza dituzte lan batzordean (UGTk 11; CCOOk 8); LABek 7; ELAk eta CGTk bina; eta Kuadroen Konfederazioak bat. Gehiengo dute bi sindikatuen lan hitzarmenak lau urteko irau-

ALDEAK

Bi proposamenak

Iraupena. UGT eta CCOOk lau urteko lan hitzarmena proposatu dute. ELA eta LABk hirukoa nahi dute.

KIP. UGT eta CCOOk 2001erako KPI gehi %4,5eko soldata igoera eskatu dute. Hurrengo urteetarako %3. ELA eta LABek, KPI gehi %5,3 aurreneko urtean, eta %1 hurrengo bakoitzeko.

pena proposatu du (2001-2003). Soldataren igoerari dagokionez, Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) gehi %4,5 litzateke lehenengo urtean, eta %3 hurrengo urteetarako. Dena dela,

KPI %4 baino gehiago igotzen bada, igoera berrikusi egin beharko litzatekeela diote.

LAB eta ELAk berriz jarri dute mahai gainean hiru urteko lan hitzarmena. Soldata igoerari dagokionez, KPI gehi %5,3 eskatu dute aurtengo urterako, eta hurrengo urteetan KPI gehi puntu bat igotzea nahi dute.

Multinazionalak eskatzen zien lan malgutasunari dagokionez, lau sindikatuok hitzartutakoari eusten diote, eta oporrak eta lan egin beharreko larunbatak mantendu egiten dira.

Euskal sindikatuok UGT eta CCOOri mahai bateratua hautsi izana leporatu diete. Bi aldeak eztabaidatzen jarraituko dute gaur, «egoera desblokeatzeko» xedearekin. ELAk eta LABek hitzartutakoa langileen batzarrek onartzeko eskatu du.

LABURRAN



CHRISTOPHE DE PRADA

Dominique Durruti Hemen-eko lehendakaria, beste hiru kiderekin.

Hemen elkarteak elkartasuneko ekonomia hartu zuen lelotzat Donaixti-Ibarren egindako ekitaldian

Elkartasuneko ekonomiaz hartu zuten gaitzat Hemen taldeak Donaixti-Ibarren (Nafarroa Beherea) joan den larunbatean antolatutako egunean. Gainera, Eztigar sagardotegia eta Manex Erdozaintzi kolegioa bisitatu ostean, sagardo bazkari batean parte hartu zuen jende andanak. Ipar Euskal Herrian ekonomia garapena laguntzeko xedez sortu zen, orain dela 20 urte, Hemen. Gaur egun asmo berari heltzen dio, hots, elkartasunaren bidetik ibiliko den ekonomia bat bultzatzeari.

Corporacion Egañak 3.500 milioi pezeta inbertituko ditu Mexikoko lantegian

CIEk 3.500 milioi pezeta inbertituko ditu Celayan (Mexiko) eraikiko duen lantegi berrian. Atzo jarri zuten lehenengo harria. Bertan, aluminioa, estanzazioa, hodian bihurtzea, soldadura eta plastikoaren txertatzea egingo dute. Lehen fasean 4.000 milioi pezeta fakturatu eta Estatu Batuetara heldu nahi du lantegiak.

Gamesaren Andaluziako sukurtsala ekipo ondasunez hornitzen hasi da Bombardier

Gamesak, Sevillako Easa del Sur enpresa filialaren bidez, lehenengo ekipoez hornitu du Kanadako Bombardier enpresa. Ekipo horiek CRJ 700 hegazkinerako ekoizti dituzte. Gamesa Aeronautikak 2.500 milioi pezeta inbertitu ditu Andaluziako lantegia abiarazteko. Urte amaierarako 700 laguni emango die beharra.

Sindikatuok lan itunaren aldeko mobilizazioetara deitu dute gaurko Bizkaiko garbiketa enpresen aurrean

ELA, CCOO, ESK eta LABek deituta, garbiketa sektoreko langileak FCC enpresaren aurrean kontzentratuko dira goizeko hamarretan, lan itun egokia eskatzeko. Protesta sektoreko beste enpresa batzuetara eramango dute gero. Patronalak %4,1eko igoera eskaintzen du urte honetarako. ELA sindikatuaren iritziz, igoera hori ez da nahikoa, «enpresek etekin handiak lortu arren sektoreko langileek eros-ahalmena galdu dutelako».

BURTSA. Negoziazio bolumen txikia, Erreserba Federalaren zain

Jai mehe

J.B.Andueza |

Sotes jaunaren baimenez, «jai mehe» gisa definitu behar atzo Bilbon izan genuena: hauteskunde emaitzena kitatuz, bihar Erreserba Federalak egin dezakeenaz zabaldu zen porra berria. Eta horrekin txantxak gutxi, negoziazioa eskasa, jai mehe eta mingaina lodi. Eta ho-


ri, kotizazioen egun bateko gehienezko gorabeherak mugatzeko sistema berria estreinatu zen egunean.

Telepizza, Dragados eta Carrefourrek %3 pasa irabazi zuten, baina Edurnezuri eta ipotxak ez ziren fin ibili: Telefonicak %1,94 galdu zuen, TPIk %5,37, Terrak %1,04 eta Movielek %2,93.

DATUA

Pearson komunikabide taldean duen %5 saldu nahian ei dabil Telefonica, *Financial Times*-en arabera. 565 milioi euro inguru balio du partaidetza horrek. Komunikabideetan sartuz Villalongak hasitako estrategia aldatzekotan dabil Alierta, Edurnezuriren oraingo presidentea.

Bilboko 2000 indizea



Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	10.823,39 (+%0,02)
Tokio (Nikkei)	13.873,02 (-%1,21)
Madrid (IBEX-35)	9.602,20 (-%0,85)
Paris (CAC-40)	5.487,72 (-%1,43)
Londres (FTSE 100)	5.690,50 (-%3,50)
Frankfurt (DAX)	6.064,68 (-%1,24)
Milano (Mibtel)	28.154 (+%0,52)

* Egutaria arte

Dibisen merkatua

Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (EABB)	0,8762
Libra Esterlina	0,6172
100 Yen (Japonia)	1,0762